

Arrasateko Mugikortasun Jasangarrirako Planaren Eguneratzea



ERANSKINAK



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Zuzendaritza fakultatiboa



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Garazi Etxeberria

*Hirigintza, Trantsizio ekologiko eta
Mugikortasun batzordeko burua*

Aitor Jauregi

Hirigintzako Burua

Zigor Andino

Udaltzainburua

Igor Kortabarria

*Hirigintza, Eraikuntza eta Mugikortasun
Teknikaria*

Idazketa



Emeka Okpala González

*Planaren idazlea
Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria*

Daniel Jordi Bibiloni

Soziologoa

Ália Ramellini Llorca

Ingurumen-aditua

Diego Gómez Matarranz

Geografoa

Andrea Melero Ramos

Geografoa eta GIS aditua

Oriol Codina Lara

Soziologoa eta parte-hartzean aditua

INTRAKo talde teknikoaren laguntzarekin.



SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD	
KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA	
Proiektuaren egiaztatzea	DJ
Nor	2024

AURKIBIDEA

1.ERANSKINA PARTAIDETZA	5
1. SARRERA	6
1.1. Xedea	6
1.2. Metodologia.....	6
2. PLANA MARTXAN JARTZEA	7
3. ARLO DESBERDINEKIN EGINDAKO BARNE BILERAK	8
4. BILERAK HERRITARREKIN.....	9
4.1. Saioa entitate eta erakundeekin.....	9
4.2. Herritarrei irekitako saioa	9
5. LINEAKO INKESTA	13
5.1. Egindako galderak	13
5.2. Emaitzak	19
2. ERANSKINA AFORO AUTOMATIKOAK	34
1. 1. Puntua	35
2. 2. Puntua.....	36
3. 3. Puntua.....	37
4. 4. Puntua.....	38
5. 5. Puntua.....	39
6. 6. Puntua.....	40
3.ERANSKINA ABIADURA KONTROLAK	41
1. 1. Puntua – Zarugalde kalea	42
2. 2. Puntua – Zerrajera kalea	43
3. 3. Puntua – Galizia kalea (Arizmendi ikastola)	44

1.ERANSKINA PARTAIDETZA



1. SARRERA

1.1. Xedea


Dokumentu honen helburua da Mugikortasun Plana egiteko prozesuan behar den parte-hartzearen ezaugarriak zehaztea.

Parte-hartzea Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legearen ondoriozko betebeharrak bat da. Lege horren arabera, herritarrek parte hartu behar dute Mugikortasun Jasangarrirako Planak egiten.

1.2. Metodologia

Lehenik eta behin, prestatze fase bat egiten da; fase horretan, idazketa taldeak administrazioarekin adosten ditu jarduerak eta haiek egiteko datak. Jarduera bakoitzaren ondorioak jasotzen dira.

Figura 1.1. Prozesuaren eskema



Prozesu horretan, hauek hartu dira kontuan:

- **Genero eta berdintasun irizpideak:** Prozesuak Emakumeen Txokoaren ekarpenak jaso behar ditu. Hainbat kolektiboren parte-hartzea ere bermatu behar du.
- **Hizkuntza eskubideak:** prozesuaren garapenean parte hartzen duten pertsona guztien hizkuntza eskubideak bermatzen dira.
- **Hauteskunde-aldiak:** 2024ko hauteskunde-aldiak hartu dira kontuan partaidetza-jarduerak antolatzeko.

2. PLANA MARTXAN JARTZEA

Udalak 2024ko apirilaren amaieran iragarri zuen Mugikortasun Jasangarrirako Plana eguneratzeko asmoa. Adierazpen horietan Planaren helburua eta herritarren parte-hartze prozesuaren urratsak aipatu ziren.

Figura 1.2. Planaren martxan jartzeari buruzko prentsa-ebakinak



Abiarazte lanen barruan, planerako logotipo bat eta aurkezpenetarako musika sarrera bat egin ziren.

3. ARLO DESBERDINEKIN EGINDAKO BARNE BILERAK

Segimendu-bileretan, udaleko hainbat arlori buruzko arduradunak gonbidatu dira.

Udaleko planaren jarraipenerako talde teknikoarekin 12 jarraipen bilera egin dira guztira, eta bilera horietako gehienetan udaleko hainbat sail eta erakundek ere parte hartu dute, mugikortasunak beren lan-eremuetan duen eraginari eta egoerari buruzko ikuspuntua emanez. Saio horietan sortu diren gaiak diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko prozesuan barneratu dira. Honako hauek parte hartu dute saio horietan:

- Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun saileko arduradunak
- Udaltzaingoa
- Auzoak eta Obrak, Zerbitzuak eta Mantentze Saileko arduradunak
- Tokiko Merkataritza Saileko arduradunak
- Energia saileko arduradunak
- Gizarte Ongizate Saileko arduradunak
- Zerbitzu Ekonomikoen Saileko arduradunak
- Kultura saileko arduradunak
- Euskara saileko arduradunak
- Gazteria saileko arduradunak
- Udal Euskaltegiko arduradunak
- Ingurumen Eskolako arduradunak

4. BILERAK HERRITARREKIN

4.1. Saioa entitate eta erakundeekin

Diagnosiaren aurkezpena entitate eta erakundeei. Honako hauen ordezkariak izan ziren bertan

- I Taldea- Organo eta alderdi politikoetako ordezkariak
- II Taldea- Gizarte, ingurumen eta ekonomia interesen ordezkariak
- III Taldea- Auzoetako alkateak
- IV Taldea- Gonbidatuak izan ziren herriko beste eragile batzuk
- V Taldea- Hirigintza saileko langileak

4.2. Herritarrei irekitako saioa

Kulturaten ekainaren 17an egindako saio irekia 18:00etan.

Saioaren laburpena:

MUGIKORTASUN PLANA

HERRITARREKIN SAIOA – DIAGNOSTIKOA (2024/06/17, 18:00-20:00, KULTURATEN)

PARTEHARTZAILEAK: 17 (EMAKUMEAK: 7 GIZONAK:10)

UDAL-ARDURADUNAK: 9 (6 TEKNIKARI ETA 3 POLITIKARI)

EKARPENAK:

- Hiriarteko autobus geltokiaren inguruan, Zalduspen izango bada, herri barruan ere geltokiren bat izatea eskatzen da (San Andresen aipatzen du herritarrak).
- Beste herritar batek ez deritzo egoki autobus handiak eta haien emisioak erdigunean sartzeari. Uste du autobus geltoki bakar bat egon behar dela hiriarteko garraioetarako eta gero autobus txiki elektrikoekin geltoki hori lotu herriko gainerako guneekin, maiztasun handiz.
- Baserri-auzoetakoen egoera salatzen du, garraio publikorik ez eta garraio publikoko zerbitzuetara hurbiltzeko ere aukerarik ez (aparkatzeko aukerarik ez kalean haientzat). Kotxez ibiltzera derrigortuta daudela dio.
- Autobus geltokiak kotxeentzako aparkalekua izan dezala eskatzen du batek, doakoa autobusa erabiliko dutenentzat.
- Zalduspeko autobus geltokirako ibilbideak gauez argi nahikorik ez dutela irizten dio batek. Beldurra pairatzen dela eta horrek erabileran eragin dezakeela dio, gehienbat Musakolarantz oinez joan behar dutenentzat.
- Udala auzora garraio astunek igoera debekatuta dutela dio herritar batek. Han garatzen diren jardueretarako arazoa dela uste du (basogintza lanak, abeltzaintzakoak...).
- Udala auzorako igoeran eskola dagoela (Erguingo herri eskola) eta, harako haurren garraioan ibiltzen diren autobusek, gehienbat sarrera eta irteera orduetan, eragozpenak sortzen dituztela Udalara doazenentzat (edo Udalatik datozenentzat).

- Espazio publikoan protagonismo osoa ematen zaiola kotxeari dio herritar batek. Uste du egunean 10 minutuz baino erabiltzen ez den garraibide horretarako (kotxearentzako) gehiegizko pisua dagoela espazio publikoan. Galdetzen du ea ez den daturik jaso kotxerik erabiltzen ez duten herritar kopuruaren inguruan. Kotxeek denbora luzeak egiten dituztela aparkatuta kalean uste du, denona den espazioa okupatzen.
- Desplazamenduetarako modu desberdinak erabiltzen dituela onartzen duen herritar batek hainbat hausnarketa partekatzen ditu segurtasunaren inguruan:
- LED argiteria jartzen ari direnetik, iruditzen zaio gaez oinezko pasabideak (zebra-bideak) ez direla ongi ikusten.
- Bidegorriak eraikitzeko galtzadak estutzen direnean, oinezkoren bat galtzadara jaistean edo aparkatutako kotxeren bateko atea irekitzean, arriskua areagotzen da, galtzadan doan kotxeak ez duelako inolako margenik galtzada alboarekiko distantzia mantentzeko. "Segurtasun-tartea" galtzen dela uste du.
- Bizikleta edo patinete elektrikoetan doazenen abiadurak ere segurtasun arazoak dakartzala uste du. Abiadura handian hurbiltzen dira zebra-bideetara ere, adibidez, eta horrek arrisku egoerak sortarazten ditu.
- Herritar batek eskatzen du nolabaiteko esfortzua egin dezala udalak oinezkoak bidegorritik joan ez daitezen. Halaber iruditzen zaio batzuen abiadura gehiegizkoa dela.
- Herritar batek talka ikusten du oinezkoen eta bizikleta/MPI erabiltzaileen artean. Nolabaiteko "begiraleak" eskatzen ditu bizikletadunei/MPI dunei arreta deitzeko halako kasuetan.
- Herritar batek galdetzen du zergatik ez den herriko bidegorri sarea hedatzen Oñatin egin duten modura, galtzada elkarbanatuz motordun ibilgailuekin. Dio herrian badela halakoxe tarte txiki bat, Etxaluze parean.

Udaltzainburuak erantzuten dio seinalizazio bertikalik gabeko bideak (galtzadak) ezin direla izan bizikletentzat.

- Herritar batek faltan sumatzen du bidegorrien "sare" izaera. Halaber, diagnostikoan faltan sumatzen du bidegorrien hiriarteko sareari erreferentzia egitea. Uste du bidegorri sare banatua egiten den bitartean, behin-behinean bada ere, galtzadak partekatuz osatu beharko liratekeela egungo sareak dituen gabeziak.
- Herritar berberak dio bidegorrien arrakasta ez dela neurtzen haien luzeran, baizik eta dauzkaten koxken arabera, edo euria den egunetan egiten den erabileraren arabera, edo bizikletaz hurrak eramaten dituzten pertsona kopuruaren arabera neurtzen dela horien arrakasta. Uste du bidegorria ez duela zoruaren kolore gorriak egiten, azpiegitura izaerak baizik, eta hori sumatzen du faltan herrian.
- Herritar berberak zalantzan jartzen du diagnostikoko dokumentuan jasotzen den "bizikletentzako aparkalekuen banaketa egokiaren" aipamena. Uste du banaketa egokitze ezin dela jo soilik aparkalekuak egotea erakarpen guneetan, baizik eta herrian zehar banatuta, bizi garen lekuetan ere aparkatzeko aukera izan dadin. Bestalde, uste du banaketa egokiak ez duela esan nahi aparkalekuak egokiak izatea (estalpean, eta abar).

- Aretxabaleta baldin bada Arrasaterekin desplazamendu gehien azaltzen dituen herria, herritarrak uste du harako bidegorri ganorako bat egon beharko litzakeela. Gauza bera Bergara aldera, ikusita udalerrri horrekin ere desplazamendu ugari daudela.
- Loramendi kalean bizi den herritar batek dio arazo handia pairatzen dela Olandixoko tunela ixten denetan (mantenu edo hobekuntza lanengatik). Trafiko astun guztia Loramendi kalean barrena ibiltzen dela eta kaleak ez duela halako trafikoak jasateko izaerarik. Egokiago ikusten du trafiko horiek Uribe etorbidean barrena bideratzea.
- Gorostitza auzoko herritar batek aipatzen du irisgarritasuna bermatzea bat datorrela deskarbonizazioarekin, oinezkoen desplazamenduak errazten dituelako. Aipatzen du bere auzorako igogailu publikoaren beharra jasota zegoela aurreko Mugikortasun Planean baina udalak egin gabe jarraitzen duela. Eskatzen du egin dadila.
- Herritar batek dio garajea daukala San Bixente Ferrer kalean (Hotel Mondragon parean), eta sarri gertatzen zaiola ezin aterata egotea Nafarroa Etorbideko autobus geltokian pilatzen den autobus kopuruagatik.
- Herritar batek galtzaden egoera txarra salatzen du.
- Herritar batek Txaeta kaleko (2-4-6-8-10) etxebizitzetako lurrazpiko garajeetakoei irteera derrigortzen zaie Zalduspe aldera. Kaleak norantza bakarra duelako. Baina Zalduspeko urbanizazioa dagoen bezala egonda, eskatzen dute beste norantzan atera ahal izatea garajetik. Segurtasun arazoak ekidingo lituzke, baita pilaketak ere.
- Herritar berak eskatzen du TAO sistemako egoiliar txartelak lortzeko aukera ematea beraiei ere.
- Herritar batek adierazten du hainbat bidegurutze zein sarrera-irteeretan edukinontziak egoten direla (edo TAOko makinak, edo furgonetak aparkatuta) ez dutenak ahalbidetzen inor ba ote datorren ikustea eta horrek segurtasun arazoak sortzen dituela. Galdetzen du ea baden modurik kasu horietan furgonetei aparkatzea eragozteko.
- Herritar bat kexatzen da Alecoop alboko LEDdun farolak ez dabiltzalako. Esan zaio jakinaraziko dela obra, zerbitzu eta mantenu sailean (jakinarazi da dagoeneko).
- Herritar batek galdetzen du ea zergatik ez diren mugikortasun arauak betetzen Udala auzoan, lurzoru urbanoa izanik, uste du herriko gainerako guneeetan betearazten diren arauak ez direla betearazten Udalan. Kotxeak errepide erdian aparkatzen dira, baserritarrei beraien jabegorako sarrerak oztopatzen dizkiete, deitzen die udaltzainei, baina haiek ez omen dutela ezer egiten dio.
- Herritar batek dio bere iritziz haur-eskola guztien inguruek oinezkoentzako soilik izan beharko luketela.
- Herritar berberak proposatzen du auzo bakoitza "sektore" bat izan dadila, non soilik auzotarrak sartu ahalko liritekeen ibilgailuz. Hala, "pasoko" trafiko guztia eragotziko litzateke auzoetan.
- Zebra-bideen ondoko espaloiak ertzak zero kotara jaitea. Ehuneko handi batek ertza du, eta horrek arriskua dakar mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat eta haien ibilgailu egokituentzat.

- FORUMeko geralekuan autobusetatik jaisten zarenean, gutxi gorabehera metro erdiko ertza topatzen duzu, eta ez dago beheratutako punturik. Mugikortasun urriko pertsonentzako beste zailtasun bat.
- Gaur egungo autobus geltokiari dagokionez, nire proposamena da erdigunean kokatzea, EH-Bilduren programan aurreikusita zegoen bezala.
- Arrasateko udalak, Mugikortasun Jasangarrirako abian duen Plan berritzea dela eta, Bedoña Auzo Batzordeak, auzorako garraio publikoaren zerbitzua eskatzen du, ordu jakin batzuetan autobus zerbitzua ezarriz edo beharren arabera taxi-busa.

Arrazoiak:

- Gaur egun ibilgailu pribatuan egiten dira desplazamendu guztiak.
- Auzoetako biztanleok ere, zergak ordaintzen ditugu horren truke zerbitzuak jasotzeko.
- Auzoko egoera aztertuz, biztanleriaren batezbesteko adina altua da, horrek, alde batetik, egunez eguneko beharrak betetzeko zailtasunak eta isolamendurako arriskua erakusten du, dagoeneko gertatzen ari dena eta, bestetik, gazteen kasuan gurasoekiko menpekotasun osoa.

5. LINEAKO INKESTA

Lineako inkestaren helburua udalerriko mugikortasunari buruzko ohiturak eta iritziak modu orokorrean ezagutzea da. Inkestaren helburua ez da Arrasateko biztanleriaren ordezkartza osoa izatea, baizik eta parte-hartzaileen ohiturak eta kezka nagusiak islatzea.

Erabilitako metodologia formatu aldakorreko 32 galdera egitea izan da (erantzun bakarra, erantzun anitza, galdera irekia, etab.), helburuari buruz egindako galderaren arabera. Inkesta 8 zatitan banatu da: desplazamenduen maiztasuna, oinezko mugikortasuna, bizikleta eta MPI mugikortasuna, garraio publikoko mugikortasuna, ibilgailu pribatua mugikortasuna eta aparkalekua, lanerako edo ikasketarako ohiko ibilbideko hobekuntzak, kanpo-eraginak eta jarduerak eta datu soziodemografikoak.

5.1. Egindako galderak

1. ZATIA: Desplazamenduen maiztasuna

1. Gurutze batez markatu jarduera hauek egiteko erabilitako garraioa(k):

	Oinez	Bizikleta	MPI (patinetea edo antzekoa)	Hiriarteko autobusa	Herribusa	Motoa	Kotxea	Kamioia, furgoneta
Desplazamendua lanpostura/ikastetxera								
Erosketak/enkarguak egin								
Zaintzak (seme-alabak eskolan jasotzea, mugikortasun murriztua duen pertsona bati lagundu...)								
Asteguneko aisialdia								
Asteburuko aisialdia								
Besteak								

2. ZATIA: Mugikortasuna oinez

2. Baloratu oinezko desplazamenduen alderdi hauek udalerrian (1=oso gaizki, 5=oso ondo):

	1	2	3	4	5	Ez daki
Espaloien egoera (zabalera, mantentze-lanak...)						
Oinezkoen pasabideen kokalekua eta erosotasuna						
Beste ibilgailu batzuekin elkarbizitza (bizikletak, patineteak, autoak, etab.) oinezkoentzako eremuetan (adibidez, Alde Zaharra)						
Ibilgailu motordunentzako kaleak itxi egun edo ordu jakin batzuetan (eskoletarako sarrerak/irteerak, etab.)						
Lantokietarako sarbidea						

3. Udalerriko zein kale da oinez joateko kale baten adibide ona? (erantzun irekia)

4. Zein kale hobetu beharko litzateke oinezko desplazamenduak sustatzeko? (erantzun irekia)

3. ZATIA: Mugikortasuna bizikletan eta MPI

5. Markatu gurutze batez zein maiztasunekin erabiltzen dituzun garraio bide hauek (erantzun bakarra)

	Egunero / ia egunero	Noizbehinka astegunetan	Bakarrik asteburuetan	Hilean noizbehinka	Inoiz / ia inoiz
Bizikleta					
MPI (patinete edo antzekoak)					

6. Bizikleta edo patinetea nola erabiltzen duzun kontuan hartu gabe, baloratu udalerrian bizikletaz/MPIz egiten diren joan-etorrien alderdi hauek (1=oso gaizki, 5=oso ondo):

	1	2	3	4	5	Ez daki
Bizikletaz/MPI ibiltzeko erraztasuna						
Bizikletentzako/MPI aparkalekua						
Bizikleta-ibilbidearen zoladuraren egoera						
Oinezkoekiko bizikidetzaren eremu partekatuetan (oinetzkoentzako kaleak, plataforma bakarrak, etab.).						
Ibilgailu motordunekin bizikidetzaren eremuak.						
Lantokietarako sarbidea.						
Ondoko udalerrietan loturak.						
Garraio publikoko geltokietara iristeko ibilbidea bizikletaz edo MPI.						

7. Zein kaletan egingo zenuke bizikleta/MPI ibilbide seguruagoa? (erantzun irekia)

4. ZATIA: Mugikortasuna garraio publikoan

8. Markatu gurutze batez zer maiztasunekin erabiltzen dituzun garraio bide hauek (erantzun bakarra):

	Egunero / ia egunero	Noizbehinka astegunetan	Bakarrik asteburuetan	Hilean noizbehinka	Inoiz / ia inoiz
Hiriarteko autobusa					
Herribusa					
Taxia					

9. Zein dira gaur egun udalerrian garraio publikoak dituen ahalmen eta gabezia nagusiak? (idatzi)

10. Zein da garraio publikoari dagokionez hobetu beharreko alderdirik premiazkoena? (idatzi)

11. Proposamen hauetako zein iruditzen zaizu egokiena autobus geltoki bat kokatzeko? (erantzun bakarra)

- Zalduspe
- Garibai / Laubide plaza
- Beste bat (idatzi)

12. Deskribatu aurreko erantzunean aukeratutako autobus-geltokia kokatzeko arrazoi nagusiak (erantzun bat baino gehiago)

- Geltokiaren kokalekua
- Udalerriko beste guneekin duen lotura
- Geltokirainoko irisgarritasuna
- Desplazamendua beste garraio bide batzuekin konbinatzeko aukera (oinez, bizikletaz, patinetez, ibilgailu pribatuan)
- Bestelakoak (idatzi)

5. ZATIA: Mugikortasuna ibilgailu pribatuan eta aparkamendua

13. Markatu gurutze batez zer maiztasunekin erabiltzen dituzun garraio bide hauek (erantzun bakarra):

	Egunero / ia egunero	Noizbehinka astegunetan	Bakarrik asteburuetan	Hilean noizbehinka	Inoiz / ia inoiz
Kotxea (gidaria)					
Kotxea(laguntzailea)					
Partekatutako kotxea (sharing)					
Motoa					
Beste ibilgailu motordunak (furgoneta, kamioia)					

14. Gurutze batez markatu udalerriko aparkaleku mota hauek, nahikoak, nahikoak ez edo gehiegizkoak diren.

	Nahikoak ez	Nahikoak	Gehiegizkoak
Aparkaleku libre/doakoa kotxeentzako			
TAO Express			
TAO Merkea			

TAO Luzea			
TAO Arrunta			
Bertakoak			
Motorrentzako aparkalekuak			
Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako aparkalekuak			
Zamalanentzako zonak			

15. Egokia iruditzen zaizu TAO guneen egungo funtzionamendua?

- Bai
- Ez
- Ez daki

16. Eremu edo kaleren bat gehituko edo kenduko zenuke egungo konfiguraziora?

6. ZATIA: Lan edo ikasketarako ohiko ibilbideko hobekuntzak

17. Ze distantzia dago (km-tan) zure bizilekuaren eta lantokiaren/ikasketa-lekuaren artean? (idatzi)

18. Zergatik joaten da/ez da oinez lanera/ikastera? (erantzun bat baino gehiago)

- Distantzia
- Ordu-tegiak
- Erosotasuna
- Oinez iristeko ibilbide seguru eta eroso-en falta
- Bestelakoak (idatzi)

19. Ze neurri hartuko zenuke lanera/ikastera oinez joatea sustatzeko? (erantzun bat baino gehiago)

- Erosoagoak eta seguruagoak diren ibilbideak
- Ordu-tegi-malgutasuna
- Bat ere ez
- Bestelakoak (idatzi)

20. Zergatik erabiltzen du/ez du bizikleta edo MPI lantokira/ikastetxera joateko? (erantzun bat baino gehiago)

- Distantzia
- Ordu-tegiak
- Erosotasuna
- Bizikletaz iristeko ibilbide seguru eta erosorik ez izatea
- Bidegorrien arteko loturarik eza
- Bizikletentzako aparkalekurik ez
- Bestelakoak (idatzi)

21. Zein neurri litzateke egokia lanera/ikastera bizikletaz edo MPIz joatea sustatzeko? (erantzun bat baino gehiago)

- Ibilbide erosoagoak eta seguruagoak
- Ordu-tegi-malgutasuna
- Bizikletaz ibiltzeko azpiegitura erosoagoa, seguruagoa eta konektatuagoa
- Helmugan arropaz aldatzeko aukera
- Bizikletentzako aparkaleku gehiago
- Bat ere ez
- Bestelakoak (idatzi)

22. Zergatik erabiltzen du/ez du garraio publikoa lantokira/ikastetxera joateko? (erantzun bat baino gehiago)

- Desplazamenduen denbora
- Ordu-tegiak
- Erosotasuna
- Garraio publikoaren eskaintzarik eza
- Geltokiaren eta helmugaren arteko distantzia
- Bestelakoak (idatzi)

23. Zein neurri litzateke egokia lanera/ikastera garraio publikoan joatea sustatzeko? (erantzun bat baino gehiago)

- Helmugako tokiarekin konexio hobea
- Ordu-tegi-maiztasun handiagoa (Herribusa)
- Ordu-tegi-maiztasun handiagoa (hiriarteko autobusak)
- Desplazamendu-denbora laburragoa (Herribusa)
- Desplazamendu-denbora laburragoa (hiriarteko autobusak)
- Autobus geraleku gehiago
- Bat ere ez
- Bestelakoak (idatzi)

7. ZATIA: Kanpo-eragileak eta jarduerak (kutsadura, zarata, istripuak...)

24. Zure ustez, zein izan behar da udalerriko mugikortasun iraunkorra hobetzeko lehentasunezko gai nagusia? (hautatu 3 gehienez)

- Lehiakortasuna eta ekonomia
- Irisgarritasuna
- Bizi kalitatea
- Osasuna
- Segurtasuna
- Kutsadura atmosferikoa
- Zarata
- Digitalizazioa

25. Gauz, zein garraibide iruditzen zaizkizu segurtasun gutxikoenak? (erantzun bat baino gehiago)

- Oinez
- Bizikleta
- MPI
- Gaueko autobusa
- Motoa
- Kotxea

26. Udalerriko mugikortasunari buruzko iruzkinen bat baduzu: (erantzun irekia)

8. ZATIA: Datu giza demografikoak

27. Adina (erantzun bakarra)

28. Generoa (erantzun bakarra)

- Emakumea
- Gizona
- Beste bat

29. Bizileku auzoa (erantzun bakarra)

30. Jaioterria (idatzi)

31. Ikasketa-maila (erantzun bakarra)

- Titulaziorik gabe
- Lehen hezkuntza
- Bigarren hezkuntza (DBH, Batxilergoa, BUP, COU, FP Grado Erdia)
- Goi maila (FP Goi Maila)
- Unibertsitatea
- Ez daki



32. Egoera profesionala (erantzun bakarra)

- Ikaslea
- Okupatuta
- Geldirik
- Etxeko lanak
- Erretiratua / pentsioduna
- Ez daki


5.2. Emaizak

Galdeketa ekainaren 10etik 30era bitartean egon zen aktibo, herritarrek bete zezaten. Denbora-tarte horretan, betetako 162 galdetegi jaso ziren, eta emaitzak jarraian aztertzen dira:


Inkestan parte hartu dutenen **profil soziodemografikoa** honako hau da:





Jaioterria




Lanbide egoera






Inkestaren erantzunetan, parte-hartzaileen profil soziodemografikoak nabarmentzen du inkestatuen erdiak baino gehiago emakumezkoak direla, eta %2a ez-binarioak. Gainera, parte-hartzaile gehien dituen adin-tartea 30 eta 40 urte bitartekoa da, eta, ondoren, 40 eta 50 urte bitartekoa. Parte-hartzaile gehienak udalerrikoak dira, eta etorkinak ez dira inkestan ageri. Parte-hartzaileen lanbide egoerari eta ikasketa mailari dagokienez, inkesta behar baino gehiago landunek eta unibertsitate-prestakuntza dutenek egin dute. Azkenik, inkestak erakusten du parte-hartzaile gehien dituen udalerriko auzoa Txaeta dela, baina biztanleriaren banaketa nahiko aberatsa da.

Herritarren desplazamenduen maiztasunari buruzko ohitura orokorreari dagokienez, hauek dira emaitzak:



Inkestari erantzun diotenen arabera, jarduera gehienetan nahiago dute oinez joan, lantokira joateko izan ezik, autoa baita gehien erabiltzen den ibilgailua. Bizikleta da gehien erabiltzen den hurrengo aukera, eta horren atzetik Herribusa.

Oinezko mugikortasunari dagokionez, emaitzek adierazten dute:




Parte-hartzaileak kezkatuta agertu dira espaloien egoerarekin eta oinezkoentzako guneetan beste ibilgailuekin batera egotearekin. Alderdi horiek egoera arriskutsuak eragin diezazkiekete oinezkoek; aldiz, kaleak ibilgailu motordunei ixtea ondo baloratzen den neurria da.


Horrez gain, herrian ibiltzeko kalerik onenak Garibai Etorbidea, Kontzezino Kalea, Araba Hiribidea, Biteri Plaza, Erdiko Kalea, Olarte Kalea eta Ignacio Zuloaga Kalea direla uste dute. Alde zaharreko hainbat kale ere aipatzen dituzte, hala nola Iturriotz Kalea edo Erdiko kalea. Kale horiei buruzko iruzkin errepikatuenek eta positiboek espaloien zabaltasuna eta bizikletentzako espazio ona aipatzen dituzte.

Bestalde, hobetzeko behararekin inkestatuek aipatu dituzten kaleen artean, Zarugalde kalea eta Otorala kalea dira gehien aipatzen direnak, eta horien atzetik, Gipuzkoa Etorbidea, Santa Marina Kalea, Altamirazpi Kalea, Arrasate Pasealekua, Uribarri etorbidea, Erguin kalea eta Olarte kalea. Parte-hartzaileek aipatzen dituzten gai komunen artean daude oinezkoen azpiegitura hobetzeko beharra, irisgarritasuna, segurtasuna, berdeguneak sartzea eta ibilgailuen zirkulazioa murriztea.

Hona hemen **bizikleta eta MPI bidezko mugikortasunaren** emaitzak:




Emaitzek erakusten dutenez, pertsonak MPIak baino askoz gehiago erabiltzen dute bizikleta, baina, hala ere, erabilera oso mugatua da, eta MPIaren kasuan, ia ez dira erabiltzen. Azalpena, segur aski, bizikletan ibiltzearen alderdi desberdinen atsekabeagatik da. Balorazio baxuena industrialdeetara eta lanpostuetara sarrerengatik da, eta garraio publikoaren geltokietara iristeko ibilbideagatik. Horrez gain, herriko bizikleta azpiegiturak hobetu beharko lituzkeen hainbat kale aipatzen dituzte inkestak, batez ere Otalora Kanean, Gipuzkoa Etorbidean eta Zarugalde Kanean.



Parte-hartzaileen iruzkinak erakusten dute garrantzitsua dela hobetzea bizikleta bideen interkonexioa, segurtasuna, txirrindularien eta oinezkoen arteko gune partekatuak, txirrindularientzako eta oinezkoentzako arauen hezkuntza, eta eremu espezifikoaren hobekuntza, hala nola Gipuzkoa Etorbidea udalerriko beste puntu garrantzitsu batzuekin lotzea, zenbait

gunetako argiztapena hobetzea, eta zuzeneko eta maldarik gabeko ibilbideak egitea bizikleta erabiltzea errazteko.

Garraio publikoari dagokionez, hauek dira jasotako erantzunak:




Emaitzek erakusten dutenez, hiriarteko busa da gehien erabiltzen den garraio publikoko metodoa, baina erabilera ez da egunero egiten, eta herritar gehienek onartzen dute ez dutela inoiz erabiltzen. Era berean, taxia da gutxien erabiltzen den garraio publikoa.

Parte-hartzaileek azpimarratzen dituzten garraio publikoaren puntu positiboak ibilbideak egoki betetzea eta Donostia eta Gasteiz bezalako hiri garrantzitsuekin konexio ona izatea dira, baita lanegunetan autobusen maiztasun ona izatea ere, eta Herribusaren kasuan egokia da adinekoentzat edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, zenbait alderditan.


Bestalde, garraio publikoaren gabeziak ugariagoak dira, eta, nagusiki, maiztasunean eta ordutegietan, ibilgailuen egoeran, puntualtasun eta irisgarritasun txarrean eta azpiegituran dauden arazoak sailkatzen dira. Komentarioetan aipatzen da linea gehiagoren beharra eta autobus maiztasun hobea landa-eremuetan, autobusen egoera negargarria antzinasuna eta matxurak direla eta, eta mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarritasun-plataformen funtzionamendu txarra. Halaber, geltokietako azpiegiturretan arazoak daudela aipatzen dute, zerbitzuen informazio gutxi dagoelako eta ez dutelako klimaren kontrako inolako babesik; azkenik, zerbitzuen tarifak garestituz jotzen dituzte erabiltzaileek.

Garraio publikoan hobetu beharreko alderdiei dagokienez, inkestatuek hainbat arlo kritiko aipatu zituzten. Batez ere, autobus flota berritzeko premia, zaharkituta baitago eta zerbitzuen maiztasuna eta ordutegiak hobetu behar baitira. Halaber, garraioen zein geralekuen irisgarritasuna hobetzearen garrantzia aipatu dute, eta baita industria eremuetara eta urrunago dauden auzoetara ibilbideak zabaltzeko beharra ere.

Autobus geltokia kokatzeko proposamenak





Autobus geltokiaren kokapena egokituz jotzeko arrazoiak




Autobus geltoki berri batentzako kokapena aurkitzeko proposamenari dagokionez, inkestatuek ez dute alderik erakutsi Zalduspe eta Garibai/Laubide plazako aukeren artean, eta %10 zalantzati agertu dira, edo zenbait xehetasun aipatu dituzte, hala nola azokatik edo supermerkatuetatik gertu jartzea. Autobus-geltoki bat jartzeko arrazoi nagusiak kokapenarekin lotuta daude, eta, ondoren, geltokirainoko irisgarritasunarekin eta bidaia beste garraiobide batzuekin konbinatzeko aukerarekin.

Ibilgailu pribatuko mugikortasunari eta aparkalekuei buruzko galderetan emaitza hauek lortu dira:



Emaitzen arabera, autoa asko erabiltzen da herrian, bai gidari gisa, bai laguntzaile gisa; beste ibilgailu pribatuetan, ordea, oso gutxi erabiltzen da. Aparkaleku moten balorazioari dagokionez, inkesta egin dutenen iritziz, aparkaleku librearen/doako aparkalekuaren kopurua ez da nahikoa, eta mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkaleku nahikorik ez dagoela ere azpimarratu dute. Aitzitik, motorrentzako aparkalekuei eta zamalanetarako guneei dagokienez, udalerrian nahikotzat jo dira.



Egokia iruditzen zaizu TAO guneen egungo funtzionamendua?



TAO aparkalekuei dagokienez, nahikotzat edo apur bat gehiegizkotzat jo dira TAO Luzearen kasuan. Izan ere, inkestatuen erdiek baino gehiagok ez dute egokitzat jotzen eremu horien funtzionamendua.

Gaur egungo hiri-konfigurazioari dagokionez, parte-hartzaile gehienek ez lukete aldaketa nabarmenik egingo, baina bada talde nabarmen bat hirigunetik kanpoko eremuetako edo udalerriri osoko TAO guneak ezabatzea nahiago lukeena. Bestalde, gutxiengo batek iradokitzen du sistema hedatzea edo berrantolatzea, haren eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko.


Hona hemen **lanerako edo ikasketarako ohiko ibilbideko hobekuntzen** atalean lortutako emaitzak:




Pertsonak oinez joatea edo ez joatea erabakitzeko arrazoi nagusia distantzia da; izan ere, emaitzetan ikusten denez, biztanleen %27a bakarrik bizi da bere lantokitik edo ikastetxetik kilometro bat baino gutxiagora, eta horrek zaildu egiten die pertsonari oinez ibiltzea. Beste arrazoi garrantzitsu batzuk dira oinez joateko edo beste garraio metodo bat erabiltzeko erosotasuna, edo lantokiko edo ikastetxeko ordutegiak, oinezko joan-etorriei mesede edo kalte egiten dietenak.


Inkestari erantzun diotenen gehiengoak onartu du motibatuago sentituko liratekeela lanera edo ikastera oinez joateko, baldin eta ibilbideak erosoagoak eta seguruagoak balira. Azpimarratzekoa da pertsona gehiagok ez dutela uste inolako neurririk dagoenik oinez ibiltzera bultzatzeko, eta %20k uste dute ordutegi malgutasuna neurri ona izango litzatekeela. Beste erantzunen artean, pertsona batzuek aipatzen dute ona litzatekeela zuhaitz gehiago landatzea espaloietan itzal eremuak handitzeko, eta dagoeneko oinez doazela erantzun zuten batzuek.

Lanera edo ikastera oinez joatea sustatzeko neurri egokia





Lantokira edo ikasketa zentzura joateko bizikleta edo MPI erabiltzeko edo ez erabiltzeko arrazoia





Pertsonak bizikletaz edo MPIz ez mugitzeko arrazoi nagusia distantzia da, eta, horren atzetik, erosotasuna eta bizikleta bideen arteko konexiorik eza (bidegorriak) eta ibilbide seguruagoak eta erosoagoak. Azken arrazoi horiek dira lantokira edo ikasketa zentrorra joateko garraio horien erabilera gehien sustatuko luketen neurriak, eta bizikleten aparkaleku gehiago izatea ere onuragarria litzatekeela nabarmentzen dute.







Garraio publikoaren kasuan, lanera edo ikastera joateko edo ez joateko arrazoi nagusia ordutegiagatik da, eta, era berean, joan-etorrien denboragatik eta erosotasunagatik. Beste aukera bati erantzun dioten pertsonen portzentajeak, hurbiltasunagatik garraio publikoa erabiltzen ez dutenak edo beren lanpostuan autoa erabili behar dutenak menikatzen ditu. Zati txiki bat jada erretiratuta dago edo gaur egun ez du lanik egiten. Bestalde, inkestatuen arabera, garraio publikoa erabiltzeko gehien sustatuko duten neurriak ordutegien maiztasuna handitzea, joan-etorrien denbora murriztea eta helmuga tokiarekiko lotura hobetzea izango dira. Ehuneko txiki batek beste neurri bat aukeratu zuen, hala nola ibilbideak zabaltzea eta geldialdiak areagotzea, itzarote-denbora murriztea, autobus flota modernizatzea edo garraio publikoan deskontuak edo autoa ez erabiltzeko disuasio neurriak ezartzea.

Azkenik, kanpo-eraginei eta jarduketei dagokienez, erantzunak honako hauek dira:

Herriko mugikortasun jasangarria hobetzeko lehentasunezko gaiak



Inkestaren arabera, herritarrek uste dute udalerriko mugikortasun jasangarria hobetzeko gairik garrantzitsuena bizi-kalitatea dela, eta, ondoren, irisgarritasuna edo segurtasuna. Nabarmentzekoa da %1ek baino gutxiagok uste duela digitalizazioa mugikortasun jasangarria hobetzeko gai garrantzitsua dela.



Segurtasunari dagokionez, gauez erabiltzeko segurtasun gutxien duen garraioberidea arinki aldatzen da gizonen eta emakumeen kasuan. Emakumeen ustez, oinez joatea ez da bizikleta erabiltzea bezain segurua, gizonetzkoena ez bezala. Taxiz, motoz eta autoz egindako joan-etorriei dagokionez, gizonetzkoek uste dute emakumezkoek baino segurtasun gutxiago dutela, autobusa motoa bezain segurtasunik gabea dela uste baitute.

Bestelako iruzkinak

Mugikortasunari buruzko inkestan jasotako iruzkinak herritarren hainbat kezka eta proposamen azaleratzen dituzte:

Inkestan parte hartu duten pertsona batzuek Nafarroa Hiribidearen moduko kale batzuen norabidea aldatzea iradoki dute, norabide bakar bihurtzeko eta, horrela, ibilgailuen zirkulazioa murrizteko, edo bi noranzkoetako kaleak noranzko bakarrera mugatzeko, Deba Hiribidean bezala, jarria errazteko eta oinezkoen eta txirrindulariei lehentasuna emateko.

Garraio publikoa hobetzearen garrantzia herritarren premia argia da, baita bizikleten edo MPIn erabilera sustatzearen garrantzia ere, egungo azpiegitura hobetzen bada eta ibilbideak seguruak eta ongi konektatuak izatea lortzen badute. Oinezkoen, txirrindularien eta gidarien arteko errespetuaren inguruan kontzientziazteko interesa ere azpimarratzen dute.

Garraio pribatuari dagokionez, aparkaleku arautuaren sistema (TAO) kritikatu dute, garestiegia delako, eta, beraz, bertakoentzat prezio eskuragarriagoak proposatu dituzte. Argiztapenarekin eta errepideen egoerarekin izandako arazoak ere aipatu dituzte.

Bestalde, parte-hartzaileek azpimarratu dute ez dagoela irisgarritasunik adinekoentzat edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Era berean, mugikortasun arauari eta errespetuari buruzko kontzientzia hobetzeko hezkuntza programak ezartzea proposatu dute.

2. ERANSKINA AFORO AUTOMATIKOAK

1. 1. PUNTUA




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 1
Carretera: Bizkaia etorbidea
Pk: 0
Sentido: Centro - Salida Municipio
Fecha: 18/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%
0 a 1	3 75%	0 0%	1 25%	4	0,2
1 a 2	2 67%	0 0%	1 33%	3	0,2
2 a 3	4 80%	0 0%	1 20%	5	0,3
3 a 4	2 100%	0 0%	0 0%	2	0,1
4 a 5	6 100%	0 0%	0 0%	6	0,3
5 a 6	42 100%	0 0%	0 0%	42	2,1
6 a 7	90 96%	0 0%	2 2%	92	4,6
7 a 8	299 96%	1 0%	11 4%	311	15,7
8 a 9	266 95%	0 0%	13 5%	279	14,0
9 a 10	115 97%	1 1%	2 2%	118	5,9
10 a 11	83 97%	1 1%	2 2%	86	4,3
11 a 12	109 92%	2 2%	7 6%	118	5,9
12 a 13	96 96%	2 2%	2 2%	100	5,0
13 a 14	103 96%	2 2%	2 2%	107	5,4
14 a 15	103 93%	5 5%	3 3%	111	5,6
15 a 16	78 91%	2 2%	5 7%	86	4,3
16 a 17	99 93%	5 5%	2 2%	106	5,3
17 a 18	106 96%	2 2%	2 2%	110	5,5
18 a 19	88 96%	1 1%	3 3%	92	4,6
19 a 20	83 92%	3 3%	4 5%	90	4,5
20 a 21	38 97%	1 3%	0 0%	39	2,0
21 a 22	45 100%	0 0%	0 0%	45	2,3
22 a 23	20 91%	0 0%	2 9%	22	1,1
23 a 24	10 83%	0 0%	2 17%	12	0,6
TOTAL DIA	1.890 96%	28 1%	68 3%	1.966	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	820	41,29
Mañana (9 a 13 h.)	422	21,25
Tarde (16 a 20 h.)	398	20,04
16 horas (6 a 22 h.)	1.890	95,17
Hora punta completa	311	15,66 (7 a 8)
Índice de variación		10%
% de vehículos pesados		3,42%




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 1
Carretera: Bizkaia etorbidea
Pk: 0
Sentido: Salida Municipio - Centro
Fecha: 18/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%
0 a 1	2 100%	0 0%	0 0%	2	0,1
1 a 2	1 100%	0 0%	0 0%	1	0,1
2 a 3	0	0	0	0	0,0
3 a 4	5 100%	0 0%	0 0%	5	0,3
4 a 5	10 77%	0 0%	3 23%	13	0,7
5 a 6	33 100%	0 0%	0 0%	33	1,9
6 a 7	47 98%	1 2%	0 0%	48	2,7
7 a 8	95 94%	0 0%	6 6%	101	5,7
8 a 9	88 96%	0 0%	4 4%	92	5,2
9 a 10	58 96%	0 0%	1 2%	59	3,3
10 a 11	65 96%	1 1%	2 3%	68	3,8
11 a 12	62 89%	1 1%	7 10%	70	3,9
12 a 13	103 96%	1 1%	4 4%	108	6,1
13 a 14	117 98%	1 1%	2 2%	120	6,7
14 a 15	121 94%	5 4%	3 2%	129	7,2
15 a 16	135 98%	0 0%	3 2%	138	7,7
16 a 17	210 98%	1 0%	3 1%	214	12,0
17 a 18	205 96%	2 1%	6 3%	213	12,0
18 a 19	143 96%	2 1%	1 1%	146	8,2
19 a 20	84 98%	2 2%	0 0%	86	4,8
20 a 21	52 96%	1 2%	2 4%	55	3,1
21 a 22	44 98%	1 2%	0 0%	45	2,5
22 a 23	27 93%	0 0%	2 7%	29	1,6
23 a 24	3 50%	0 0%	3 50%	6	0,3
TOTAL DIA	1.710 96%	19 1%	52 3%	1.781	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	964	54,13
Mañana (9 a 13 h.)	305	17,13
Tarde (16 a 20 h.)	659	37,00
16 horas (6 a 22 h.)	1.692	95,00
Hora punta completa	214	12,02 (16 a 17)
Índice de variación		13%
% de vehículos pesados		2,92%



2. 2. PUNTUA




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 2
Carretera: Rotonda Osaña hacia hospital
Pk: 0
Sentido: Salida Municipio - Hospital
Fecha: 19/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%			
0 a 1	7	100%	0	0%	7	0,2		
1 a 2	5	100%	0	0%	5	0,1		
2 a 3	1	90%	0	0%	1	0,1		
3 a 4	2	100%	0	0%	2	0,1		
4 a 5	17	90%	0	0%	2	11%	19	0,5
5 a 6	89	100%	0	0%	0	0%	89	2,5
6 a 7	131	96%	0	0%	6	4%	137	3,9
7 a 8	223	97%	1	0%	7	3%	231	6,5
8 a 9	200	96%	1	0%	8	4%	209	5,9
9 a 10	171	90%	2	1%	18	10%	191	5,4
10 a 11	197	94%	3	1%	9	4%	209	5,9
11 a 12	206	92%	3	1%	16	7%	227	6,4
12 a 13	209	94%	2	1%	11	5%	222	6,3
13 a 14	239	96%	2	1%	9	4%	250	7,1
14 a 15	255	95%	4	1%	9	3%	268	7,6
15 a 16	202	96%	2	1%	7	3%	211	6,0
16 a 17	198	90%	4	2%	18	8%	220	6,2
17 a 18	214	93%	4	2%	12	5%	230	6,5
18 a 19	223	93%	1	0%	17	7%	241	6,8
19 a 20	212	95%	2	1%	8	4%	222	6,3
20 a 21	147	96%	1	1%	6	4%	154	4,4
21 a 22	107	96%	0	0%	4	4%	111	3,1
22 a 23	51	96%	0	0%	2	4%	53	1,5
23 a 24	23	92%	0	0%	2	8%	25	0,7
TOTAL DIA	3.331	94%	32	1%	172	5%	3.535	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	1.782	49,84
Mañana (9 a 13 h.)	849	24,02
Tarde (16 a 20 h.)	913	25,83
16 horas (6 a 22 h.)	3.333	94,29
Hora punta completa	268	7,58 (14 a 15)
Índice de variación		20%
% de vehículos pesados		4,87%




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 2
Carretera: Rotonda Osaña hacia hospital
Pk: 0
Sentido: Hospital - Salida Municipio
Fecha: 19/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%			
0 a 1	3	75%	0	0%	1	25%	4	0,1
1 a 2	3	100%	0	0%	0	0%	3	0,1
2 a 3	1	100%	0	0%	0	0%	1	0,0
3 a 4	1	100%	0	0%	0	0%	1	0,0
4 a 5	10	91%	0	0%	1	9%	11	0,3
5 a 6	19	83%	2	9%	2	10%	23	0,6
6 a 7	71	87%	1	1%	10	12%	82	2,3
7 a 8	294	94%	1	0%	17	5%	312	8,6
8 a 9	238	91%	2	1%	21	8%	261	7,2
9 a 10	181	87%	4	2%	24	12%	209	5,7
10 a 11	192	91%	3	1%	17	8%	212	5,8
11 a 12	224	93%	0	0%	18	7%	242	6,6
12 a 13	239	94%	3	1%	13	5%	255	7,0
13 a 14	189	93%	0	0%	15	7%	204	5,6
14 a 15	226	92%	1	0%	19	8%	246	6,8
15 a 16	205	94%	0	0%	13	6%	218	6,0
16 a 17	259	91%	8	3%	19	7%	286	7,9
17 a 18	287	93%	4	1%	16	5%	307	8,4
18 a 19	257	96%	1	0%	11	4%	269	7,4
19 a 20	171	92%	0	0%	14	8%	185	5,1
20 a 21	117	88%	1	1%	15	11%	133	3,7
21 a 22	100	91%	2	2%	8	7%	110	3,0
22 a 23	46	85%	1	2%	7	13%	54	1,5
23 a 24	11	85%	0	0%	2	15%	13	0,4
TOTAL DIA	3.344	92%	34	1%	263	7%	3.641	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	1.985	53,97
Mañana (9 a 13 h.)	918	25,21
Tarde (16 a 20 h.)	1.047	28,76
16 horas (6 a 22 h.)	3.531	96,98
Hora punta completa	312	8,57 (7 a 8)
Índice de variación		19%
% de vehículos pesados		7,22%



3. 3. PUNTUA




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 3
Carretera: Gipuzkoa etorbidea
Pk: 0
Sentido: Centro - Salida Municipio
Fecha: 18/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%			
0 a 1	5	100%	0	0%	0	0%	5	0,1
1 a 2	3	100%	0	0%	0	0%	3	0,1
2 a 3	2	100%	0	0%	0	0%	2	0,1
3 a 4	3	100%	0	0%	0	0%	3	0,1
4 a 5	3	75%	0	0%	1	25%	4	0,1
5 a 6	31	89%	2	6%	2	6%	35	0,9
6 a 7	81	91%	5	6%	3	4%	89	2,3
7 a 8	170	90%	3	2%	16	9%	189	4,9
8 a 9	199	93%	2	1%	13	6%	214	5,6
9 a 10	198	91%	1	0%	18	8%	217	5,7
10 a 11	234	92%	1	0%	18	7%	253	6,6
11 a 12	206	92%	2	1%	15	7%	223	5,8
12 a 13	225	92%	6	2%	13	5%	244	6,4
13 a 14	197	92%	4	2%	13	6%	214	5,6
14 a 15	256	94%	2	1%	14	5%	272	7,1
15 a 16	218	93%	2	1%	14	6%	234	6,1
16 a 17	288	91%	7	2%	21	7%	316	8,3
17 a 18	335	93%	1	0%	23	6%	359	9,4
18 a 19	270	94%	2	1%	16	6%	288	7,5
19 a 20	247	93%	5	2%	14	5%	266	6,9
20 a 21	170	97%	1	1%	5	3%	176	4,6
21 a 22	141	97%	3	2%	1	1%	145	3,8
22 a 23	61	97%	2	3%	0	0%	63	1,6
23 a 24	14	100%	0	0%	0	0%	14	0,4
TOTAL DIA	3.557	93%	51	1%	220	6%	3.828	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	2.166	56,58
Mañana (9 a 13 h.)	937	24,48
Tarde (16 a 20 h.)	1.229	32,11
16 horas (6 a 22 h.)	3.699	96,63
Hora punta completa	359	9,38 (17 a 18)
Índice de variación		17%
% de vehículos pesados		5,75%




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 3
Carretera: Gipuzkoa etorbidea
Pk: 0
Sentido: Salida Municipio - Centro
Fecha: 18/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%			
0 a 1	2	67%	0	0%	1	33%	3	0,1
1 a 2	0		0	0%	0		0	0,0
2 a 3	5	83%	0	0%	1	17%	6	0,1
3 a 4	5	100%	0	0%	0	0%	5	0,1
4 a 5	32	97%	0	0%	1	3%	33	0,7
5 a 6	139	95%	3	2%	4	3%	146	3,0
6 a 7	197	99%	1	1%	1	1%	199	4,1
7 a 8	283	95%	4	1%	11	4%	298	6,2
8 a 9	244	94%	3	1%	13	5%	260	5,4
9 a 10	250	93%	2	1%	16	6%	268	5,6
10 a 11	320	94%	3	1%	16	5%	339	7,0
11 a 12	255	92%	2	1%	20	7%	277	5,7
12 a 13	305	94%	3	1%	16	5%	324	6,7
13 a 14	295	95%	2	1%	15	5%	312	6,5
14 a 15	270	94%	3	1%	15	5%	288	6,0
15 a 16	226	93%	4	2%	13	5%	243	5,0
16 a 17	337	93%	4	1%	23	6%	364	7,5
17 a 18	392	94%	3	1%	23	6%	418	8,7
18 a 19	330	95%	2	1%	16	5%	348	7,2
19 a 20	281	95%	3	1%	13	4%	297	6,2
20 a 21	195	94%	2	1%	10	5%	207	4,3
21 a 22	113	92%	4	3%	6	5%	123	2,6
22 a 23	43	86%	3	6%	4	9%	50	1,0
23 a 24	13	87%	1	7%	1	7%	15	0,3
TOTAL DIA	4.532	94%	52	1%	239	5%	4.823	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	2.635	54,63
Mañana (9 a 13 h.)	1.208	25,05
Tarde (16 a 20 h.)	1.427	29,59
16 horas (6 a 22 h.)	4.565	94,65
Hora punta completa	418	8,67 (17 a 18)
Índice de variación		18%
% de vehículos pesados		4,96%



4. 4. PUNTUA




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 4
Carretera: Puente Osainá
Pk: 0
Sentido: Entrada polígono - Entrada Rotonda
Fecha: 19/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%
0 a 1	5	100%	0	5	0,2
1 a 2	1	100%	0	1	0,0
2 a 3	0	0	0	0	0,0
3 a 4	1	100%	0	1	0,0
4 a 5	5	100%	0	5	0,2
5 a 6	46	96%	0	47	1,9
6 a 7	67	94%	0	71	2,9
7 a 8	145	93%	1	156	6,5
8 a 9	137	96%	2	143	5,9
9 a 10	141	95%	0	148	6,1
10 a 11	145	95%	1	152	6,3
11 a 12	158	94%	0	168	7,0
12 a 13	156	92%	0	170	7,0
13 a 14	170	93%	1	182	7,5
14 a 15	140	95%	1	147	6,1
15 a 16	126	92%	4	137	5,7
16 a 17	181	94%	2	192	8,0
17 a 18	181	92%	1	197	8,2
18 a 19	168	93%	2	180	7,5
19 a 20	128	95%	1	135	5,6
20 a 21	79	96%	0	83	3,4
21 a 22	52	96%	0	54	2,2
22 a 23	32	94%	0	34	1,4
23 a 24	7	100%	0	7	0,3
TOTAL DIA	2.271	94%	16	2.415	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	1.342	55,57
Mañana (9 a 13 h.)	638	26,42
Tarde (16 a 20 h.)	704	29,15
16 horas (6 a 22 h.)	2.315	95,88
Hora punta completa	197	8,16 (17 a 18)
Índice de variación		20%
% de vehículos pesados		5,30%




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 4
Carretera: Puente Osainá
Pk: 0
Sentido: Entrada Rotonda - Entrada polígono
Fecha: 19/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%
0 a 1	2	100%	0	2	0,1
1 a 2	0	0	0	0	0,0
2 a 3	0	0	0	0	0,0
3 a 4	2	100%	0	2	0,1
4 a 5	5	100%	0	5	0,3
5 a 6	11	100%	0	11	0,6
6 a 7	23	96%	0	24	1,4
7 a 8	108	92%	2	118	7,0
8 a 9	76	89%	2	88	5,2
9 a 10	78	84%	1	93	5,5
10 a 11	98	92%	1	107	6,3
11 a 12	110	89%	3	123	7,3
12 a 13	124	92%	2	135	8,0
13 a 14	99	86%	4	115	6,8
14 a 15	83	82%	6	101	6,0
15 a 16	82	90%	2	91	5,4
16 a 17	137	89%	5	154	9,1
17 a 18	136	90%	2	151	8,9
18 a 19	118	86%	5	134	7,9
19 a 20	95	95%	2	100	5,9
20 a 21	63	91%	2	69	4,1
21 a 22	43	90%	5	48	2,8
22 a 23	14	93%	0	15	0,9
23 a 24	10	100%	0	10	0,6
TOTAL DIA	1.519	90%	44	1.696	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	997	58,79
Mañana (9 a 13 h.)	458	27,00
Tarde (16 a 20 h.)	539	31,78
16 horas (6 a 22 h.)	1.651	97,35
Hora punta completa	154	9,08 (16 a 17)
Índice de variación		19%
% de vehículos pesados		7,84%



5. 5. PUNTUA




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 5
Carretera: Araba etorbidea
Pk: 0
Sentido: Entrada municipio - Salida municipio
Fecha: 19/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%
0 a 1	5 100%	0 0%	0 0%	5	0,1
1 a 2	7 100%	0 0%	0 0%	7	0,2
2 a 3	5 100%	0 0%	0 0%	5	0,1
3 a 4	4 100%	0 0%	0 0%	4	0,1
4 a 5	23 100%	0 0%	0 0%	23	0,6
5 a 6	111 100%	0 0%	0 0%	111	2,4
6 a 7	126 89%	4 3%	11 8%	141	3,1
7 a 8	225 95%	0 0%	13 5%	238	5,2
8 a 9	278 93%	0 0%	20 7%	298	6,5
9 a 10	202 86%	0 0%	28 12%	230	5,0
10 a 11	225 84%	4 1%	39 15%	268	5,9
11 a 12	212 85%	3 1%	35 14%	250	5,5
12 a 13	332 91%	4 1%	30 8%	366	8,0
13 a 14	324 91%	4 1%	27 8%	355	7,8
14 a 15	273 89%	11 4%	24 8%	308	6,8
15 a 16	235 91%	0 0%	23 9%	258	5,7
16 a 17	327 91%	0 0%	34 9%	361	7,9
17 a 18	364 93%	4 1%	23 6%	391	8,6
18 a 19	330 96%	3 1%	12 4%	345	7,6
19 a 20	212 98%	4 2%	1 0%	217	4,8
20 a 21	153 96%	3 2%	3 2%	159	3,5
21 a 22	138 95%	4 3%	3 2%	145	3,2
22 a 23	53 95%	0 0%	3 5%	56	1,2
23 a 24	19 100%	0 0%	0 0%	19	0,4
TOTAL DIA	4.183 92%	48 1%	329 7%	4.560	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	2.428	53,25
Mañana (9 a 13 h.)	1.114	24,43
Tarde (16 a 20 h.)	1.314	28,82
16 horas (6 a 22 h.)	4.330	94,96
Hora punta completa	391	8,57 (17 a 18)
Índice de variación		19%
% de vehículos pesados		7,21%




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 5
Carretera: Araba etorbidea
Pk: 0
Sentido: Salida municipio - Entrada municipio
Fecha: 19/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%
0 a 1	6 100%	0 0%	0 0%	6	0,1
1 a 2	5 83%	0 0%	1 17%	6	0,1
2 a 3	4 80%	0 0%	1 20%	5	0,1
3 a 4	3 75%	0 0%	1 25%	4	0,1
4 a 5	14 93%	0 0%	1 7%	15	0,3
5 a 6	92 94%	0 0%	6 6%	98	2,1
6 a 7	104 89%	3 3%	10 9%	117	2,5
7 a 8	323 95%	0 0%	18 5%	341	7,4
8 a 9	289 94%	0 0%	20 6%	309	6,7
9 a 10	230 88%	0 0%	32 12%	262	5,7
10 a 11	202 85%	4 2%	36 15%	242	5,2
11 a 12	211 85%	4 2%	34 14%	249	5,4
12 a 13	250 90%	4 1%	23 8%	277	6,0
13 a 14	272 91%	4 1%	23 8%	299	6,5
14 a 15	240 89%	10 4%	21 8%	271	5,9
15 a 16	274 91%	0 0%	26 9%	300	6,5
16 a 17	353 91%	0 0%	35 9%	388	8,4
17 a 18	375 93%	4 1%	23 6%	402	8,7
18 a 19	310 96%	4 1%	10 3%	324	7,0
19 a 20	253 97%	4 2%	3 1%	260	5,6
20 a 21	191 96%	4 2%	4 2%	199	4,3
21 a 22	155 95%	3 2%	5 3%	163	3,5
22 a 23	54 93%	0 0%	4 7%	58	1,3
23 a 24	23 100%	0 0%	0 0%	23	0,5
TOTAL DIA	4.233 92%	48 1%	337 7%	4.618	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 16-20 h.)	2.404	52,06
Mañana (9 a 13 h.)	1.030	22,30
Tarde (16 a 20 h.)	1.374	29,75
16 horas (6 a 22 h.)	4.403	95,34
Hora punta completa	402	8,71 (17 a 18)
Índice de variación		18%
% de vehículos pesados		7,30%



6. 6. PUNTUA




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 6
Carretera: Unibarrí etorbidea
Pk: 0
Sentido: Salida municipio - Entrada municipio
Fecha: 18/03/2024
Obs. núm.: 1

HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%			
0 a 1	9	100%	0	0%	0	0%	9	0,2
1 a 2	5	100%	0	0%	0	0%	5	0,1
2 a 3	3	100%	0	0%	0	0%	3	0,1
3 a 4	9	75%	0	0%	3	25%	12	0,3
4 a 5	17	100%	0	0%	0	0%	17	0,4
5 a 6	116	95%	0	0%	6	5%	122	3,1
6 a 7	116	91%	3	2%	8	6%	127	3,2
7 a 8	380	94%	0	0%	25	6%	405	10,1
8 a 9	291	93%	0	0%	21	7%	312	7,8
9 a 10	197	90%	0	0%	21	10%	218	5,5
10 a 11	143	87%	2	1%	20	12%	165	4,1
11 a 12	173	88%	2	1%	22	11%	197	4,9
12 a 13	235	93%	2	1%	17	7%	254	6,4
13 a 14	333	92%	4	1%	24	7%	361	9,0
14 a 15	219	90%	10	4%	15	6%	244	6,1
15 a 16	199	93%	0	0%	16	7%	215	5,4
16 a 17	269	91%	0	0%	26	9%	295	7,4
17 a 18	282	93%	3	1%	17	6%	302	7,6
18 a 19	213	96%	2	1%	8	4%	223	5,6
19 a 20	157	97%	4	2%	1	1%	162	4,1
20 a 21	104	97%	2	2%	1	1%	107	2,7
21 a 22	179	97%	3	2%	2	1%	184	4,6
22 a 23	44	98%	0	0%	1	2%	45	1,1
23 a 24	7	100%	0	0%	0	0%	7	0,2
TOTAL DIA	3.700	93%	37	1%	254	6%	3.991	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 i 16-20 h.)	1.816	45,50
Mañana (9 a 13 h.)	834	20,90
Tarde (16 a 20 h.)	982	24,61
16 horas (6 a 22 h.)	3.771	94,49
Hora punta completa	405	10,15 (7 a 8)
Índice de variación		16%
% de vehículos pesados		6,36%




AFORO AUTOMÁTICO DE VEHÍCULOS

Municipio: Arrasate
Código estación: 6
Carretera: Unibarrí etorbidea
Pk: 0
Sentido: Entrada municipio - Salida municipio
Fecha: 18/03/2024
Obs. núm.: 1


HORA	TURISMOS	MOTOS	PESADOS	TOTAL	%			
0 a 1	6	100%	0	0%	0	0%	6	0,2
1 a 2	6	100%	0	0%	0	0%	6	0,2
2 a 3	4	100%	0	0%	0	0%	4	0,1
3 a 4	4	100%	0	0%	0	0%	4	0,1
4 a 5	16	100%	0	0%	0	0%	16	0,5
5 a 6	114	96%	0	0%	5	4%	119	3,4
6 a 7	125	92%	3	2%	8	6%	136	3,9
7 a 8	305	94%	0	0%	21	6%	326	9,3
8 a 9	260	94%	0	0%	18	6%	278	7,9
9 a 10	167	89%	0	0%	20	11%	187	5,3
10 a 11	128	87%	2	1%	17	12%	147	4,2
11 a 12	142	88%	1	1%	18	11%	161	4,6
12 a 13	219	92%	3	1%	15	6%	237	6,8
13 a 14	319	92%	4	1%	23	7%	346	9,9
14 a 15	218	90%	8	3%	15	6%	241	6,9
15 a 16	164	93%	0	0%	12	7%	176	5,0
16 a 17	219	91%	0	0%	21	9%	240	6,8
17 a 18	254	93%	3	1%	15	6%	272	7,7
18 a 19	198	96%	0	0%	8	4%	206	5,9
19 a 20	132	97%	3	2%	1	1%	136	3,9
20 a 21	82	96%	1	1%	1	1%	84	2,4
21 a 22	138	97%	2	1%	2	1%	142	4,0
22 a 23	34	97%	0	0%	1	3%	35	1,0
23 a 24	6	100%	0	0%	0	0%	6	0,2
TOTAL DIA	3.260	93%	30	1%	221	6%	3.511	

RESUMEN ESTADÍSTICO	Vehículos	%
8 horas (9-13 i 16-20 h.)	1.586	45,17
Mañana (9 a 13 h.)	732	20,85
Tarde (16 a 20 h.)	854	24,32
16 horas (6 a 22 h.)	3.315	94,42
Hora punta completa	346	9,85 (13 a 14)
Índice de variación		18%
% de vehículos pesados		6,29%



3.ERANSKINA ABIADURA KONTROLAK


1. 1. PUNTUA – ZARUGALDE KALEA



2. 2. PUNTUA – ZERRAJERA KALEA



3. 3. PUNTUA – GALIZIA KALEA (ARIZMENDI IKASTOLA)



Izenburua:

Arrasateko Mugikortasun Jasangarrirako
Planaren Eguneratzea

ERANSKINAK

2024



Ingeniería de Tráfico, S.L.

Consultors de mobilitat
els primers en seguretat viària

www.intrasl.net

intra@intrasl.net

+34 93 301 37 78

